

KIRIBIL  
AMAIGABEA

John Green

# BAT

Lehenbizikoz ohartu nintzenean ni fikziozko pertsonaia bat izan nintekeela, Indianapolis iparraldeko White River High School ikastetxe publikoan igarotzen nituen astegunak. Han, ni baino askoz ere ahaltsuagoak ziren indar batzuek —hain ahaltsuak, ezen ez bainintzen gai horiek identifikatzen hasteko ere— ordu jakin batean bazkaltzera behartzen ninduten: 12:37tik 13:14ra. Indar horiek beste bazkalordu bat ezarri balidate, edo, iraileko egun hartan, bestelako hizketagai bat aukeratu balute nire patua idazten laguntzen zuten bazkaltzarrek, bestelako bukaera bat ezagutuko nukeen; edo behintzat, bestelako bilbe bat. Baina, ordurako, jabetzen hasia nintzen zure bizitza zutaz kontaktzen den istorioa dela, ez zerorrek kontaktzen duzun istorioa.

Zuk, noski, autoretzat daukazu zeure burua. Hala behar du. 12:37an txirrin monotono hori deika hasten denean, pentsatzen duzu: «Orain bazkaltzera joatea erabakitzen dut». Baina, egiazki, txirrina da erabakitzen duena. Margolaria zarela uste duzu, baina mihisea zara.

Kafetegian, ehunka ahots oihuka ari ziren, zein baino zein ozenago, halako moduz non elkarrizketa zarata huts bihurtua zen, arroken gainetik doan ibaiaren zurrumurrua. Eta argi artifizial oldarkorreko fluoreszente zilindrikoen az-

pian eserita nengoela, pentsatzen nuen nola guztiok epopeia pertsonal bateko heroitzat geneukan geure burua, nahiz eta funtsean, organismo berdin-berdinak baino ez ginen egiazki, desinfektatzaile eta koipe usaina zerion gela erraldoi eta leihorik gabeko bat kolonizatzen.

Kakahuete-gurin eta ezti ogitarteko bat jaten ari nintzen, eta Dr Pepper bat edaten. Zintzoa izan behar badut, higuigarri zait landareak eta animaliak mastekatu, eta gero, esofagoan behera bultzatzearen prozesu osoa. Horregatik, horretan ez pentsatzen ahalegindu nintzen, nahiz eta hori ere, funtsean, horretan pentsatzen jarraitzeko modu bat zen.

Mahaiaren beste aldean, nire parean, Mychal Turner zegoen orri horiko libreta batean zirrimarrak egiten. Gure mahaiia Broadwayn denbora luzez ikusgai egondako antzezlan bat bezalakoa zen: antzetzaldea aldatuz joan da urteen joan-etorri azkarrean, baina paperak ez dira sekula aldatzen. Mychal Artista zen. Daisy Ramirezekin hizketan ari zen, eskola garaitik nire Lagun Min eta Ausartenaren papera izan zuenarekin, baina kafetegiko zarata burrunbatsurekin ezin nuen haien elkarrizketa entzun.

Eta zein zen, bada, nire papera antzerki-lan hartan? Adiskidearena. Daisyren Laguna nintzen, edo Holmes andrearen Alaba. Beste norbaiten zerbait nintzen.

Nire urdaila ogitartekoaz arduratzen hasia zela nabaritu nuen, eta kafetegiko aldi bereko mintzo ozenen zaratotsa gorabehera, digestioa egiten *entzun* nezakeen: nire sabeleko bakteria guztiak kakahuete-gurinarekin lika mastekatzeko, neuk ere bazkaltzen ari ziren ikaslez beteriko kafetegi bat banu bezala neure barnean. Hotzikara bat sartu zitzaidan hezurretan barrena.

—Ez al zinen harekin udaleku batera joan? —galdetu zidan Daisyk.

—Norekin?

—Davis Pickettekin.

—Bai —esan nion—. Zer bada?

—Ez al didazu entzun? —galdetu zidan.

«Nire digestio-hodiaren kakofonia entzuten ari naiz» pentsatu nuen. Aspalditik nekien organismo bizkarroien bilduma izugarri handi bati ostatu ematen niola, jakina; baina ez zitzaidan gehiegi gustatzen hori gogoraraz zitezadaten. Gure zelula-kopurua zenbatzen badugu, gizakiok mikrobioak gara ehuneko berrogeita hamarrean, gutxi gorabehera, eta horrek esan nahi du zure gorputza osatzen duten zelulen erdia ez direla zureak. Alegia, nire bioma partikularrean milaka aldiz mikrobio gehiago dago gure planetan gizakiak baino, eta sarritan irudipena dut neure baitan bizitzen, ugaltzen eta hiltzen senti ditzakedala. Esku-ahur izerdituak bakeroetan lehortu, eta arnasa kontrolatzen saiatu nintzen. Egia da antsietate arazoak dauzkadala, baina argudiatuko dut ez dela hain funsgabea ere kezkatua egotea, larruazalez estalitako bakterien kolonia bat garela jakinik.

—Polizia Davisen aita atxilotzeko zorian egon zen eroskeria-edo leporatuta —esan zuen Mychalek—; baina sarekada aurreko gauean desagertu zen tipoa. Ehun mila dolarreko saria dago harrapatzen duenarentzat.

—Eta zuk haren semea ezagutzen duzu —esan zidan Daisyk.

—Ezagutzen *nuen* —zuzendu nion.

Daisyri begiratu nion, hark sardexkarekin institutuko menuko pizza angeluzuzenari eta lekei erasotzen zien bitartean. Tarteka, begirada jasotzen zuen ni nengoen alde-rantz, begiak zabal-zabalik, «Eta?» galdeginez bezala. Banekien zerbait galde niezaion nahi zuela, baina ez nekien zer, zeren nire urdaila ez zen isiltzen, eta horrek biziki kezkatzen ninduen, bazitekeelako parasitoren batek eraginiko infekzio bat izatea, auskalo nola harrapatua.

Mychali erdizka entzuten nion Daisyri bere azken proiektu artistikoaren berri ematen. *Photoshop*az baliatzen ari omen zen Mychal izena zuten ehun pertsonen aurpegiak nahasteko, eta nahasketa horren emaitza, nonbait, Mychal berri bat izango zen: ehun eta batgarren Mychal. Ideia interesgarria zen inondik ere, eta entzun egin nahi nion, baina kafetegiko giroa zaratatsuegia zen, eta ezin nuen burutik kendu agian zerbait gaizki zebilela nire barne indarren oreka mikrobianoan.

Sabel barrunbeko gehiegizko zarata baktería hilgarri batek —*Clostridium difficile* delakoak— eragindako infekzioaren sintoma bat da, oso gutxitan agertzen den sintoma bada ere. Sakelakoa atera, eta «Giza mikrobiota» bilatu nuen, Wikipediako sarrera bat gure gorputzaren barnean bizi diren bilioika mikroorganismoen buruz. Berriaz irakurri beharra neukan. *C. diff*aren artikuluan klikatu, eta behe-rantz jo nuen zuzenean, *C. diff*agatik infekzio gehienak ospitaleetan gertatzen direla dioen zatira. Artikulua irakurtzen jarraitu nuen, sintomen zerrendaraino; nik ez neukan horietako ezein, urdaileko gehiegizko zarata salbu; hala ere, banekien, aurretik egindako beste bilaketa batzuegatik, Cleveland Clinicen eman zutela *C. diff*ak jota hildako pertsona baten kasuaren berri. Per-

tsona horrek tripako mina eta sukarra baino ez zituen ospitalera iritsi zenean. Neure buruari gogorarazi nion ez neukala sukarrrik, eta neure buruak honela erantzun zidan: «Ez duzu sukarrrik, ORAINDIK».

Neure baitan gero eta gehiago murgilduz nindoan bitartean, kafetegian, Daisyk Mychali esaten zion ezen, aurpegi-proiekturako hobe zuela, Mychal izeneko pertsonak erabili beharrean, espetxeratutako eta gerora libre utzitako gizonak hautatu. «Errazagoa izango da, inondik ere», esan zuen Daisyk, «poliziek angelu beretik ateratzen dizkietelako argazkiak, eta hartara, ardatza ez litzateke pertsona-izena izango, arrazak, gizarte-mailak eta espetxeratzeko masiboak baizik», eta Mychalek erantzun zion: «Jenioa zara, Daisy», eta neskak orduan: «Harrituta, ala?», eta, bien bitartean, nik pentsatzen jarraitzen nuen ezen, gorputz barnean daukazun zelulen erdia ez badira zureak, horrek kolokan jartzen duela «ni» singularreko pertsona izenordaina delako ideia osoa, nire patuaren autorea ere badela dioena ez aipatzearen. Eta, orduan, zizare-zulo erre-pikari hartan hondoratu nintzen, White River High School institututik at eraman ninduena zentzumenik gabeko toki batera, burutik zeharo jota daudenak baino iristen ez diren horretara.

Txikitatik, eskuin eskuko hatz luzearen ermamia ziztatu izan dut eskuineko erpuruaren azazkalaz, eta horrexegatik daukat orain maskur bitxi bat hatz-markaren gainean. Urteak eta urteak igaro ditudanez gauza bera egiten, erraz asko irekitzen dut ebaki bat azalean. Hortaz, tirita bat jartzen dut, zauria infekta ez dadin. Alabaina, batzuetan kezka sortzen zait ez ote den jada infektatuta egongo, eta orduan, ebakia drainatu beharra daukat, eta horretarako

modu bakarra da zauria berriz ere ireki eta estutzea, odola atera dadin. Behin ebakia irekitzeari buruz pentsatzen hasiz gero, ezin dut ez ireki, literalki. Barkatu ezeztapen bi-koitza, baina bitan da negatiboa egoera, eta ezeztapena ezeztatuz baino ez daiteke atera endredo honetatik. Bada, gogoa piztu zitzaidan erpuruaren azazkala ermamian hondoratzen sentitzeko, eta jakitun nintzen ez alferrikakoa zela aurre egiten saiatzea, kafetegiko mahai azpian, tirita hartzetik kendu eta maskurrean sartu nuen azazkala, urratzen zela sentitu arte.

—Holmesy —esan zuen Daisyk. Harengana jaso nuen begirada—. Bazkalordua amaitzeaz dago, eta ez duzu txintik ere esan nire ileari buruz.

Burua astindu, eta ilea harrotu zuen, xerlo gorri biziak, ia arrosak ziruditenak, mugituz. Ederki. Ilea tindatua zuen.

Neure baitatik atera eta honela esan nion:

—Oso ausarta.

—Bai, ezta? Nire ileak dio: «Jaun-andreak eta ez andreak ez gizonekin identifikatzen ez zaretenok, Daisy Ramirezek ez ditu bere promesak hautsiko, baina bai zuen bihotza».

Daisyk beti zerabilen lelo bera: «Hautsi itzazu bihotzak, ez promesak». Hemezortzi urte betetakoa orkatilan tatua-tuko zuela mehatxatzen zebilen beti. Daisy Mychalengana jiratu zen berriz, eta ni nire pentsamenduen barne bakarriketara itzuli nintzen. Nire sabelak orroka segitzen zuen, lehenago baino are ozenago. Goragalea sentitu nuen. Gorputzaren fluidoak oso modu aktiboan gorrotatzen baditut ere, oso maiz egiten dut botaka.

—Holmesy, ondo al zaude? —galdetu zidan Daisyk.

Baiezkoa egin nion. Batzuetan neure buruari galde-tzen nion zergatik ote nintzen haren gustukoa, edo behin-tzat, zergatik jasaten ote ninduen. Zergatik jasaten ote nin-duen haietako edonork. Gogaikarria nintzen, baita neure buruarentzat ere.

Izerdi-tantak sentitu nituen kopetan behera, eta behin izerditan hasiz gero, ez dago geldiaraziko nauenik. Ordu luzez egon naiteke izerdika, eta ez bakarrik aurpegitik edo besapeetatik. Nire lepoari izerdia dario. Eta nire titiei. Eta aztalei ere bai. Agian sukarra nuen.

Mahai azpian, tirita erabilia poltsikoan gorde, eta begi-ratu ere egin gabe, berri bat atera nuen; estalkia kendu, eta beherantz so egin nuen, hatzean jartzeko. Tarte guztian, airea sudurretik hartzen eta ahotik botatzen jardun nuen, Karen Singh doktoreak aholkatu bezala: airea halako errit-mo batean kanporatuz non «kandela bat dardaraziko ge-nukeen, baina itzali gabe. Imajina ezazu kandela hori, Aza, zure hatsarekin dardarka, baina hor, beti hor». Bada, hori egiten saiatu nintzen, baina pentsamenduen kiribila gero eta estuago bihurtzen ari zen. Singh doktorea entzun ne-zakeen, esanez hobe nuela sakelakoa ez atera, ez nituela gauza berberak behin eta berriro irakurri behar; baina ber-din-berdin atera nuen, eta berriz ere lotu nintzaion Wikipe-diako «Giza mikrobiota» artikulua irakurtzeari.

Kiribilarekin zera gertatzen da: barrurantz jarraitzen badiozu, egiaz ez da sekula amaitzen. Estuago bihurtuz doa infiniturantz.

Ogitartekoaren azken puska poltsa hermetiko batean gorde, altxatu, eta zaborrontzi gainezkatu batera bota nuen. Ahots bat entzun nuen nire atzean:

—Kezkaturik egon beharko nuke egun osoan bi hitz jarraian esan ez duzulako?

—Pentsamenduen kiribila —esan nuen marmarka.

Daisyk sei urte genituenetik ezagutzen ninduen, nahikoa eta sobera nioena ulertzeko.

—Imajinatu dut. Barka, neska. Atera gaitezen gaur arratsaldean.

Molly izeneko neska bat irribarretsu hurbildu zitzai-gun, eta esan zuen:

—Aizu, Daisy, jakin dezazula ilea tindatzeko erabili dituzun gerezizko edari-hauts horiek kamiseta ere zikindu dizutela.

Daisyk bere sorbaldei erreparatu zien, eta bai, kamiseta marraduna orban arrosaz zipriztindua zegoen. Ikarak hartu zuen une batez, baina berehala tentetu zuen burua.

—Bai, zera, *look*aren parte da, Molly. Kamiseta orbandunak azken moda dira Parisen une honetan. —Eta Mollyri bizkarra emanda, niri hitz egin zidan—: Ados, zurer a joango gara *Star Wars: Rebels* ikustera.

Daisy *Star Wars*en zale amorratua zen, eta ez bakarrik filmena, baita liburuena, animazio serieena eta umeentzat Legoekin egindako serieena ere. Kontakizunak idazten zituen Chewbaccaren amodio kontuei buruz, eta *Star Wars*en jarraitzaileen blog batean argitaratzen zituen.

—Zure umorea hobetuko dugu, hiru hitz edo akaso lau ere segidan esateko gai zaren arte, konforme?

—Konforme.

—Eta, gero, lantokira eramango nauzu. Barkatu, baina norbaitek eramatea behar dut.

—Ados.

Gehiago esan nahi nuen, baina pentsamenduak bata bestearen atzetik zetozkidan, beren kasa, nik nahi gabe. Neu izan banintz autore, nire mikrobiomari buruz pentsatzeari utziko niokeen. Daisyri esango niokeen biziki gus-tatu zitzaidala Mychalen proiekturako izandako ideia, eta esango niokeen baietz, Davis Pickett gogoratzen nuela, eta neure burua ere gogoratzen nuela hamaika urterekin, beti halako izu ulergaitz baino iraunkor batek hartuta. Esango niokeen gogoratzen nuela nola behin, udalekuan, Davisen ondoan etzan nintzen nasa baten ertzean, hankak dilindan eta bizkarrak zurezko ohol landugabeen kontra, eta elkarrekin begiratu geniola udako zero oskarbiari. Esango nio-keen Davisek eta biok ez genuela gehiegi hitz egiten, elka- rri ere ez geniola askorik begiratzen, baina ez ziola axola, elkarrekin zero berberari so geundelako, eta baliteke hori askoz ere intimoagoa izatea begietara begiratzea baino. Edonork begiratzen ahal dizu. Baina oso gutxitan aurkitzen duzu zure mundu berbera ikusten duen norbait.